

Nahikoa



DIANA FRANCO EGUREN

Gehiago' hitzari gizakiok lotu diogu egungo bizimodua mantentzea eta garapen espektatibak betetzea.

Bada pisua neurtzeko antzina erabiltzen zen tramankulu bat, balantza. Modu oso bisualean alde batean pisu gehiago jarrita, beste gutxiago geratzen zela erakusten zuena. Ideia hori buru askotan inprimatuta geratu zen. Beharbada, holako ideia sinplea da kapitalismoaren atzean dagoena, gehiago edo gutxiago izatearen borroka etengabea.

Behar den gehiago hori neurtzeko modua oso ezberdina izan da garaiaren arabera eta garaian-garaiko zibilizazioak formateatzeko erabili izan diren eredu zibernetikoen arabera. Azken asteko berriak entzunda, izan behar den gehiago horietako bat datua dela dirudi. Australian, gizartean hezkuntza digital kritikoa landu beharrean, eta adingabeentzat sare sozialetara sarreraren debekua gurasoen eta gazteen eskutan jarri beharrean (erraza ez den lana), korporazioen bitartez ezartzea erabaki dute. Sare sozialen jabeek eskurago jarri diete euren erabiltzaileen datu pertsonal gehiago jasotzeko aukera: haien identitatea eta adina ziurtatuko duen NANA esate baterako, eta horrek bere baitan duen informazio guztia.

AEBetan, mundu osoan etsaiak sortzeko lana ez da eten, eta hainbeste etsai sortuta, mundu osoa mehatxutzat hartu du. AEBen mehatxu potentzial den mundu guztiari buruz jakiteko grina hazten doa, duten eredu zibernetikoa atomiko bilakatuz: pertsona guztien datu pertsonalak ez ezik, mundu ikuskerak ere ezagutu nahi dituzte. Baloratzen ari dira AEBak bisitatu nahi duen orori eskatzea azken bost urteetan erabilitako telefono zenbaki ezberdinak (pertsonalak eta lanekoak), azken hamar urteetan erabilitako posta elektronikoko kontuak, igotako argazkiaren IP helbidea eta metadatuak, familiako izenak, jaiotze data eta jaiotze herria, familiako telefono zenbakiak azken bost urteetan, senideak non bizi diren, datu biometrikoak (aurpegia, hatz-aztarna, irisa, DNA).

Gehiago izatea baldin bada gutxituak izan diren herrien mendekuaren beldur bizitzea, nahikoa eta bidezkoa denarekin bizitzea bilatu beharko genuke. ●

Palestine Action-eko zortzi preso, "hiltzeko arriskuan"

JENOFA BERTHOKOIRIGGIN

Erresuma Batuan gose greban dauden Palestine Action-eko kideak dira. "Erresuma Batuko herritar gazteak presondegian hiltzeko probabilitatea benetakoa eta geroz eta handiagoa da, eta hori, delituren baten erruduntzat inoiz akusatuta izan gabe", irakurri daiteke Imran Khan & Partners abokatu bulegoak Erresuma Batuko Justiziaren Estatu-idazkari David Lammy-ri bidalitako gutunean. Al Jazeera komunikabideak eskuratu du gutuna eta horrela zabaldu da Erresuma Batuko kartzeletan dabilen Palestinaren aldeko aktibisten egoeraren berri. Zortzi dira, epaiketarik ukan gabe preso dauzkatenak eta egoera salatzeko gose greba luze batean sartuta daudenak. Lehenbizikoek duela 51 egun utzi zioten jateari eta azkenak duela 18 egun, astekari hau ixteko unean (abendua 22).

"Arduragabekeria" eta "nahitara bideraturiko gordinkeria" jokatzeko leporatzen diete presoek abokatuek Erresuma Batuko Gobernuari. Hain justu, presoek abokatuek abendua 9an bidali zioten gutuna Justiziaren Estatu-idazkari David Lammy-ri, ohartarazteko gose grebalarieen egoera "konponbiderik gabekoa" bihurtuta zegoela, baina, orduz geroztik ez dute inolako erantzunik jaso. Minduta eta

haserre daude abokatuak: "Britainiar herritarren osasuna eta ongizatea joan den honetan, atsekabetuak gara ikusita Gobernuaren geldotasuna".

Osasun egoerak txarrera egin arren, presoek garaipenera arte gose greban segitzeko asmoa dutela jakitera eman dute beraien hurbilekoek. Eskakizun nagusien artean dituzte: bat, fidantza-pean berehala aske uztea; bi, epaiketa justua izateko eskubidea; hiru, Palestine Action taldearen kontrako erreprezioaren bukaera; eta lau, Elbit izeneko armamentu enpresa israeldarraren lantoki guztien itxiera. "Gure aldarrikapenak sinpleak dira, eta argi utzi nahi dut gure greba kolektiboa ezin dela mugatu bizitzeko borondateari, makina inperialistari gerra egiteko gabilta gosea erabiltzen. Eskubideen errespetua lortzeko, bukaera arte joateko prest gaude. Jasango ditugun kalte guztiak gobernuari egoztekoak izango dira", irakurri daiteke azaroaren 7az geroztik gose greban dagoen Teuta Hoxha-k.

"Gose greban dauden Palestine Action-eko militanteak ospitaleratu dituztela jakiteak hotzikarak sortzen dizkigu", adierazi du Amnesty Internationalek. Leporatzen zaien "lotura terrorista" bertan behera uzteko eskaera berrets du. ●

